



**Larunbatean
“Bertso-magia” Sutegin**


**Arkaitzerrekako
isurketagatik, lau
pertsonek ikerketapean**

**Hezkuntza arloko grebak
jarraipen zabala izan zuen**

Maidier Makazaga, DYAko gerentea:

**“Arlo sozialean
zeregin handia dago,
errepidean baino
handiagoa seguraski”**





NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:

09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus



Lodosako pikillo piperra



Piperra 3 eratan eska daiteke:

gordinik; 1.70€/kg

Erreta: 2.30€/kg (erre ondoren 800g.)

Konjelatzeko poltsetan: 200g

inguruko poltsa (jatorrian 0.5kg
piper dira); 2.95€.

*Najerano edo Piko de Mendavia
nahi badituzu, galde iezaguzu.

Eskariak 2020/10/16 arte jasoko dira.

www.alkartasuna.eus

Alkartasuna Kooperatiban:

Atallu industrialdea 26, Usurbil

943 361 114 eta 630 938 027

alkartasuna@usurbil.com



Albisteak iruditan

Errioaren higadura egonkortzeko lanak, amaituta



Uztaila hasieratik Txokoaldeko zubi ondoan URA Agentziak bideraturiko lanak amaitu dituztela berri eman du Udalak. Bioingeniaritza lanak egin dituzte; “egurrezko zutabe batzuk sartu dituzte lurrian, higadurari aurre egin eta ibaiertza natural egonkortzeko erabili ohi dena”.

Laburrean

Jatorri aniztasunari buruzko prozesua atzeratu egin da

Irailaren 24an hastea iragarria zuen Udalak, baina urriaren 15era atzeratu dute aurkezpen ekitaldia. Bertara joateko aurretik eman beharko da izena: parekidetasuna1@usurbil.eus / 943 377 110.

10 kasu eman ziren aurreko astean Usurbilen

Azken astean 10, iraila hasi zenetik 21 eta martxoaz geroztik azken 6 hilabeteotan 52 dira Osasun Sailak Usurbilen detektatu dituen Covid19 kasuak, irailaren 21era arte.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia






Alazne Arruti

Azken hizkiarenak

Gezurra dirudien arren, etenaldi bat hartu dugula uste izanda ere, mundu birakari honek abiatu jarraitzen du aurretik. Belaunaldi bakoitzak, aurrekoaren mugarren artean abiatuta ekin ohi du bidea. Batzuetan, gizartearen zati handienak, aro horretako aurrerapen garrantzizkoenak barneratu ditzake. Eta halakoetan, ondorengoek mugari bultzadaka gainditu ditzakegunaren usteaz garatzen dugu gure jarduna. Adibide gisa, imajina ezazue bandera estatubatuarra ilargian sastatu zeneko unea. Nire aitona oraindik sinesten ez duen arren, gazteon artean, are eta urrunago joateko gai garenaren ustearekin hazi gara. Eta bestela, ikusi besterik ez dago, azken egunotan Marten bizitza egon daitekeenaren albistearen zein modutan hedatu den.

Hala ere, ezarritako mugen artean, garapen edo zaintzarik jaso ez duten alderdiak ere egon ohi dira. Eta gure mendietan gertatu ohi denaren antzera, zakar eta sasiak bazter ugari hartzen ditu, hainbeste urteetan mantendu den joko-eremuaren nolakotasuna estaltzeraino. Hau irudikatzen du, demagun, Samuel L. Jackson-ek eskuartean eusten duen euskarazko mezu famatua imajina dezakezuela.



"Gu, Z-tarrok, sare sozialen seme-alabak gara". Argazkia: Patrick Tomasso.

ALAZNE ARRUTI

"Guk Z-tarrok, ordenagailuaren tekla zanpatu eta gastatuaz osatu ditugu ikasketak, irentsi masterrak eta zerrendatu titulazioak"

Ez ote da bitxia zenbateraino poztu gaituen mami gabeko keinu sinple honek? Ez ote da Euskarak jasaten duen zapalke-ta goxatzeko dugun beharrak, edota orain arteko atentzio faltak sorturiko sentimendua?

Belaunaldi bat, ustez, garai antzerakoan jaio edo bizi den jende multzo batek osatzen duela esan ohi da. Muga zehatzik ez dagoen arren, sailkapen orokor bat egin izan da historikoki. Eta ez dakienarentzat jakin, dagoeneko. Bigarren Munduko Gerraostetik hona, X, Y, eta Z multzotan banatu gaituztela.

Bestalde, jakin baita ere, askok eta askok, oker sailkatzen eta kritikatu ohi dituen ditxosozko millennial edo milurtekoak, bigarren hizki horrek barnebiltzen dituela. Jakingo duzuen eran, belaunaldi hau, oro har, komunikabide eta teknologia digitalekiko erabilera eta trebetasunak markatu du. Nire sorpresarako ordea, duela ez asko jakin nuen, 90. hamarkadatik aurrera munduratu ginenoi, talde honetatik kanpo utzi gintuztela. Eta beraz, aitortu beharra ditzuet, neure burua Z hizkiaren multzo horretan lekuz kanpo sentitzeko beldur izan nintzela.

Baina, ez. Sailkapen txatxu horrek ezer aldatzen ez duela, nire inguru hurbileko deskribapen arin bat egitera natorkizue. Eta bai, agian arrazoi duzue. Gai astun samarrarekin bueltatu naiz zuongana, baina uda amaitu dela azpimarratu

eta serio jartzeko beharra aitortuta, akaso barkatuko nautzue.

Gu, Z-tarrok, sare sozialen seme-alabak gara. Baina tentuz, oraindik taldekideon zati handiena, ez baita sarea euren seme-alaben argazkiez josten hasi. Eta ez, kontrara, nekez aurkituko duzue gurasoek zintzilikatutako gure ingurukorik.

Guk Z-tarrok, ordenagailuaren tekla zanpatu eta gastatuaz osatu ditugu ikasketak, irentsi masterrak eta zerrendatu titulazioak. Baina gehientsuenok, ez dakigu mekanografia zer denik ere. Eta presati eta zangotrabaka idazten ditugu testu digital gehienak.

Z-aren bueltan biltzen gare-nok, gurasoek ordaindutako ikasketen parte ezinbesteko egin ditugu herrialde arrotzetako egonaldiak. Etxearen falta sumatzen hasi garenerako bueltatu behar izan dugu ordea. Eta bizitza horren erraza ez dela jabetzeko astirik izan gabe, mailetak hustu eta erantzukizunez bete zaizkigu eskuak.

Baina gu, azken hizkikook, urteetako krisi bitxienean topatu gara gainerakoekin. Eta aurrez idatzita ez zegoen hori idatzeko, lokatz eta sasitan galdutakoak lekualdatzeko, eta gauzak hobetzen hasteko unean gauden horietan ere gauden.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Arkaitzerrekako isurketagatik, lau pertsona ikerketapean

Natur baliabideen eta ingurumenaren aurkako delituen ustezko erantzule gisa, lau pertsona ikertzen ari da Guardia Zibila, maiatza hasieran Zubietako erraustegi ondotik igarotzen den Arkaitzerrekan izan zen legez kanpoko amoniako isurketaren harira. Ehunka arrain eta aingira hil zituen erraustetaren zero gunean izan zuen jatorria istripuak. Baimendutakoa baino 220 aldiz handiagoa zen amoniako kopurua antzeman zuten Arkaitzerrekan.

Guardia Zibilaren arabera, lau egunez luzatu zen legez kanpoko isurketa hura, amoniakodun 2.200.000 litro ur inguru isuri ziren, ez zen halakorik gertatu zen lehen aldia. Gutxienez beste behin jazo omen da antzeko gertaeraren bat.

Ikerketa batzordea eratzeari uko

Arkaitzerrekako isurketa eta



Arkaitzerrekako isurketa argitzeko ikerketa batzordea eratzea eskatu zuen EHBilduk, Gipuzkoako Batzar Nagusietako irailaren 16ko osoko bilkuran. EAJ, PSE eta PP aurka agertu ziren.

ELKARREKIN PODEMOS

“Gardentasun eta kontrol falta” dagoela adierazi zuen. “Hondakinen kudeaketak kontrol publikoa behar du”

erraustegiaren bueltan izan diren gertakari gehiago argitzeko ikerketa batzordea era-

tzea eskatu zuen EHBilduk, Gipuzkoako Batzar Nagusietako irailaren 16ko osoko bilkuran, “galdera gehiegi, informazio kontraesankor eta gertakari larri asko” jazo direla ohartarazita eta erraustegian izandako istripuak aztertu, ardurak argitu eta eraikuntzaren gaineko kontrol zorrotza bermatzeko. 21 batzarkide mozioaren alde

agertu ziren, 30 aurka. Ez zen onartua izan. Elkarrekin Podemosen babesa jaso zuen soilik; EAJ, PSE eta PP hirukoak duen gehiengoa aurka agertu ziren. EAJ-k agortutzat jo zuen gaia, “gai honetaz baliatuz batzuk erraustegiaren aurka berpiztu nahian dabil-tzan eztabaida” esanez. PSE-k eta PP-k istripuaren nondik norakoak argituta zeudela nabarmendu zuten, ez zela ikerketa batzorde baten beharrik, enpresa emakidadunari hiru arau hauste egotzi eta 45.000 euroko isuna jarri zitzaiola gogorarazita.

“Gardentasun eta kontrol falta”

Elkarrekin Podemosek gertaturikoa argitzeko ikerketa batzordearen beharra defendatu zuen, “gardentasun eta kontrol falta” dagoela adierazita. “Hondakinen kudeaketak kontrol publikoa behar du”.

Ika-mika

Borrokaren iraupena da gure indarra

Azpimarratu beharra daukagu Pentsiodunen Mugimenduak burututako mobilizazio jendetsuei esker ari garela konkista txikiak lortzen, konkista xumeak baina pentsiodunentzat balio handi-koak.

Toledoko Itunaren Batzordeko gomendioen artean, Magdalena Valerio Toledoko Itunaren Batzordeko lehendakariak ziurtatu digunez, Pentsiodunen Birbalaraziorako adierazle bezala KPI besterik ez da izango. Halaber, ez da sartuko Jasangarritasun Faktorea gomendioen multzoaren barne, baina ez du zehaztu 2013ko erreforman jasotzen den terminoetan jarraituko

duen ala ez. Era berean, agertzen da gomendio bezala Pentsioen Sistema Publikoko gastu desegokiak esternalizaztea.

Hala ere, badira aldarrikapen gehiago Pentsiodunen Mugimenduan nagusiak eta lehentasuna dutenak eta gure aldarrikapenetan agertzen ez direnak, hala nola: 2011ko pentsioen erreformako aspektu agresiboak, pentsio minimoa batz besteko soldataren %60koa izatea... Beraz, eskatzen dugu pentsio minimoa 1.080 eurokoa izan dadila eta lanbide arteko gutxieneko soldata 1.200 eurokoa.

Esperientziak argi uzten digu aldaketa sozialak, konkistak, errebindikazioak borrokaren

eta mobilizazioen bidez lortzen direla, eta horixe da egiten duguna Pentsiodunen Mugimendu Sozialean dihardugunok, Osakidetzako langileek, erresidentzietako langileek eta erresidentzien erabiltzaileen familien langileek, bizitza duin bate alde borrokatu, Sistema Publikoak defendatuz.

Osakidetzako langileek lanerako daukaten egoera larria salatzaren dute, eta Osasun Sailari soluzioak eskatzen dizkiote osasun sistemaren arazo larrien aurrean. Erresidentzietako erabiltzaileen familiakoek beren aldetik, erresidentzia publikoak eskatzen dituzte, seguruak eta duinak. Erresidentzietan hainbeste hildako

izan eta gero ezin da ulertu pandemiaren bigarren olatua deitu zaion honetan, hildakoen kopuru oso garrantzitsuek aurrera jarraitzea (Gipuzkoan 14, Bizkaian 47 eta Araban 7).

Egunen batean erresidentzien erabiltzaileak izango garenok geure egiten dugu egoiliarren senideek daramaten borroka, babestuz gainera, eta halaber Osakidetzako langileena ere, zeren eta gure osasuna eta bizitzaren defentsa guztiz lehen-tasunezkoa ikusten baitugu eta, aereago, gaixotasunekiko zaurgarriak izango garen adinean.

Pentsiodunak aurrera!

AEPB Pentsiodunen Batzordea

Mugimendurik ez, isiltasuna nagusi izan zen ikastetxeetan deituriko greba egunean

Igandea zirudien baina ez. Irailak 15 zituen, asteartea; eta goizeko 9:00ak aldera hutsik ziren ikastola atariak gainerako ikastetxeen antzera. Eguneroko guraso eta ikasleen joan etorririk ez. Isiltasun erabatekoa. Etenaldi eguna zuten; greba eguna hezkuntzan, LAB, ELA, STEILAS, CCOO eta UGT sindikaturek deituta, ikasgeletara aurrez aurre, modu seguru eta adostuan itzultzea exijitze-ko.

Ezohiko ikasturte hasiera izaten ari da. Era mailakatuan, taldeka, prebentzio neurrien artean hasi dituzte klaseak eta covid19 garaiotako beste ezohiko irudi bat izan genuen hilaren 15ekoa. Pandemia garaian ere ezinbestekoa den hezkuntza munduan lan egin nahiz baldintza egoki eta duintan ikasi ahal izatea exiji-



“Hezkuntza Sailak etxeko lanak egin gabe utzi ditu. Beste behin. Kasu onenean Oriarte Institutuan 50 zentimetroko tartea bermatu dezakegu mahaian artean. Auzolana? Auzolotsa!”, salatu zuten Institutuko langileek.

GREBA IKASTETXEETAN

“Eguneroko guraso eta ikasleen joan etorririk ez zen izan irailaren 15ean. Isiltasun erabatekoa izan zen ikastetxeen inguruan”

tzeko greba eguna. Geldialdi, hausnarketa, aldarrikapen eta protesta eguna.

“Oriarte BHI-n, mahai artean 50 zentimetro”

Irailaren 15eko hezkuntzako greba egunean exijituriko aurrez aurreko itzulera seguru eta

adostua gauzatzea ezinezkoa dela agerian uzten duen adibide argigarri bat. Usurbil eta Lasarte-Oriako Oriarte BHI Institutuko langileek eginiko esperimendu erraz baten bidez erakutsi nahi izan zutena. Ikasleen ikasmahaietan eseri eta distantziak neurtu zituzten. Ez da noski 1,5 metroko segurtasun tartea bermatzen. “Oriarte BHI-n, eserita, ahotik ahora metro bat”, zioten sare sozialen bidez. Mahaitik mahaira are gutxiago, “50 zentimetro”, metro erdi. Iruditan bildu zuten esperientzia honekin institutuko langileek salatu nahi izan zuten, “Hezkuntza Sailak etxeko lanak egin gabe utzi ditu. Beste behin. Kasu onenean Oriarte Institutuan 50 zentimetroko tartea bermatu dezakegu mahaian artean. Auzolana? Auzolotsa!”, salatu zuten.

297 langabetu abuztuan

Uztailan baino 2 langabetu gutxiago zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak abuztuan Usurbilen, guztira 297. Osasun krisialdian murgildu ginen martxoaren alderatuta, 42 langabetu gehiago. Buruntzaldean aldiz, 80 langabetu gehiago zenbatu dituzte iragan hilabeteetan eta 39.822 Gipuzkoan, 759 gehiago.

Kontratazioa beherantz

Usurbilgo datuetara itzulita, emakumezko langabetu gehiago (169) gizonezkoak baino (128).

31 langabetuko aldea zegoen uztailan, 41ekoa joan den hilabeteetan. 297 langabetutik 153, 45 urtetik gorakoen kolektiboan. 211 zerbitzuen sektorean.

Erregistraturiko kontratu kopuruei dagokienean, uztailan 292 izan ziren, joan den hilabeteetan 208. Ia denak aldi baterako hitzartuak, 191. Oraingoan, emakumezko gehixeago (105) kontratatu dira, gizonezkoak baino (103).

Ekintzaileentzako laguntzak

Ekintzaileentzako bi diru-la-

guntza lerro zabalik ditu Udalak, lokal hutsetan jarduera ekonomiko berri bat abian jartzeko (alokairu gastueta-rako) edota Kabiene Elkarlan Gunean urtebetez proiektua garatzeko. Eskabideak irailaren 30era arte aurkez ditzakete interesdunek.

Informazio gehiagorako: usurbil.eus / 943 371 951

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak

649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

“Honaino heldu gara!”, anbulatorioko langileen protesta ekitaldia

Es kubidedun kalitatezko osasun publikoaren alde mobilizatu ziren anbulatorioko langileak irailaren 18an 13:00ean, ordu horretarako SATSE, ELA, LAB, SME, CCOO, UGT eta ESK sindikatuek osasun etxe atarietan deitu zituzten elkarretaratzeetan. “Honaino heldu gara!” zioten kartelak eskutan, “leher egin da eta giza baliabiderik gabe” daudela salatzeke irten ziren mobilizatzen.

Pertsona ez dela erdigunean jartzen “ez pazientea, ez profesionala”, Lehen Arretan izandako inbertsioen etengabeko murrizketak salatu zituzten. “Horrek ekarri du lanean dihardutenen lan-karga handitzea, arretaren kalitatea okertzea eta itxaron zerrendak luzatzea”. Horregatik diote sindikatuok, “protestekin hasi beste erremediorik” ez dutela izan, “Osakidetzak sakoneko arazoei benetan hel diezaion”.



Irailaren 18ko eguerdian, Usurbilgo anbulatorioko langileak kalera irten ziren protesta egitera.

OSASUN ARLOA

“Kalitatezko osasun publikoaren eta langileen eskubideen alde”, mobilizazio gehiago iragarri dituzte

Eskaeron bueltan mobilizatu ziren iragan ostiralean:

■ Osasun publikoaren aurrekontua Europako Elkarretarenaren batz bestekoaren pare jartzea eta haren %25a Lehen Arretara bideratzea.

- Langile kopurua gehitzea.
- Behin behineko langileen egoera egonkortzea.
- Murrizketa bidez galdutakoa berreskuratzea.
- Esku pribatueta jarritako zerbitzuak berreskuratzea.
- Lan taldeen segurtasuna eta osasuna bermatzeko neurriak hartzea.

Deialdi gehiago

- Irailak 25, 11:00 Ospitaleetan.
- Urriak 3, 12:00 Manifestazioa Bilbon.

Katekesian izena emateko epea amaitze da

“Guraso pilaketak ekiditeko, 2. mailatik aurrerako umeak dituzten familiek korreo elektronikoz jasoko dute izen-emate orria eta informazio guztia”, aditzera eman duenez.

Umeak 1. mailan apuntatu nahi dituzten familiek Parrokiaren korreo elektronikoa (salbatoreparrokia@gmail.com) edo Parrokiako telefono zenbakian (943 361 239) utz dezakete telefonoa eta izena. “Gu jarriko gara harremanetan familiekin”.

■ Izena emateko egunak: irailak 14-25.

■ Saioen hasiera eta hauek aurrera eramateko moduak erabakitzeke daude oraindik.



Saioen hasiera erabakitzeke dago oraindik.

Ekintzaileei zuzenduriko bi laguntza lerro

Hutsik diren lokal komertzialak biziberritzeko diru-laguntza deialdia

■ Xedea: lokal komertzial huts batean jarduera berri bat martxan jarri nahi duenarentzako alokairu gastuei aurre egiteko laguntza.

■ Laguntza: gehienez bi urterako. Lehen urtean gastuaren

%40a (gehienez 300 euro), bigarren urtean %30a (gehienez 200 euro).

■ Oharra: lehentasuna izango dute egun ez dauden jarduerak edota itxi berriak izan diren jardueren segida diren egitasmoek.

■ Informazio gehiago: zabalik.usurbil.eus

Hasiz Hazi beka deialdia

■ Xedea: Kabiene elkarlan-gunean urtebeteko egonaldia diruz laguntzea.

■ Laguntza: bekaren gehienezko zenbatekoa urtebeterako 1.089 eurokoa. 12 hilabete-tako alokairu gastua (75 euro hileko), eta honi dagokion % 21eko BEZ-a (15,75 euro

hileko) izango da”.

■ Nori zuzendua: 2020. urtean enpresa proiektu berri bat duen ekintzaileari zuzendua.

Informazio gehiagorako: enplegu@usurbil.eus
943 371 951

Bi kasuetan, eskabideak aurkezteko epea: Irailak 30.



Andatzara mendi martxa urriaren 3an, presoan aferaren konponbidearen alde

Iraileko azken ostirala bueltan dugu, euskal presoan eskubideen alde mobilizatzeko eguna honenbestez. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak elkarretaratzea deitu du hilaren 25ean 20:00etan Mikel Laboa plazan. Adi mobilizazioari; Usurbilgo Sare taldea kamisetak saltzen ariko baita, aipatu mugimenduak urriaren 3rako Euskal Herri mailan antolatu duen ekimenari begira. 650 mendi tontorretara igotzeko gonbita luzatu dute, uda hasieratik martxan duten “Izan bidea” dinamikaren baitan.

Gogoan izan, euskal presoan afera konpontzearen alde lehenbailehen urratsak emateko ekimena da “Izan bidea”; “Madrid eta Parisko gobernuak presoan egoera eta presoan auziaren konponbiderako urratsak ematera bultzatzea” da asmoa. Euskal Herriak dituen biztanle adina kilometro egitera animatu digute hilabeteotan, oinez, korrika edota bizikleta gainean.

“Ikusi mendizaleak...” abestia prestatzeko deia

Dinamika beraren testuinguruan Euskal Herriko mendi gainetara igotzeko deialdia egin dute orain urriaren 3an. Usurbilen Andatza gainera igotzeko hitzordua finkatu da urriko lehen larunbaterako.



Sarek 650 mendi tontorretara igotzeko gonbita luzatu du, uda hasieratik martxan duten “Izan bidea” dinamikaren baitan. Urriaren 3rako egin dute deialdia. Usurbilgo kasuan, Andatza izango da ibiltarien helmuga.

SARE

**“Urriaren 3an
larunbata Andatza
gainera igotzeko
deia zabaldu dute.
9:00etan abiatuko
dira frontoitik”**

9:00etan frontoitik finkatu dute abiatzeko hitzordua, adin guztietako bidelagunentzat. Bere kasa joan nahi duenak badu bigarren hitzordu bat, Andatza gainean 11:00etan. Ordu horretan bilduko dira parte hartzaileak; besteak beste, banderola bat jarri eta “Ikusi mendiza-

leak” abesti ezaguna kantatuko dute. Abestiaren letra eskura izan honenbestez. Bertan direla, “beste tontorretan gaude-nak agurtzen saiatuko gara”, Usurbilgo Saretik NOAUA!ri adierazi diotenez. Inguruko mendietara ere igoko baitira hainbat herritar; “Belkoainera, Buruntzara, Adarrara, Onyira, Mendizorrotzera...”.

Aurrez eman behar da izena

Sareren 650tontor.sare.eus web orrialdean eman daiteke izena; sartu web orrian eta igo nahi duzun mendi tontorra hautatu. Usurbildarren kasuan Andatza, edota baita Ipar Euskal Herri-

ko mendi gainen bat ere. “650 mendi horiek Euskal Herri osoan zehar banatuak daude. Herri batzuei bi tontor eta hiru ere egokitu zaizkie. Badira beste tontor batzuk Iparraldean, eta herrika eskainiko dira. Usurbilen 5 laguneko taldetxo bat animatzen bada Iparraldeko tontor bat igotzera, usurbildarren izenean egingo luke. Erronka usurbildar mendizaleei helarazten diegu, ia baten bat animatzen den”. Talde txoko bat animatuko balitz, sareusurbil@gmail.com helbidera idatzi edo ostiral honetako mobilizazioan kamisetak saltzeko jarriko duten postura hurbildu.

Presoak etxeratzearen aldeko deialdiak

Irailak 25, ostirala

- 20:00 Euskal presoak etxeratze elkarretaratzea Mikel Laboa plazan. Sare-k urriaren 3ko mendi martxarako kamisetak salgai jarriko ditu.
- Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Urriak 3, larunbata

- 09:00 Sarek antolaturiko mendi martxa Andatzara, frontoitik abiatuta.
- 11:00 Andatza tontorrean bilkura; banderola jarri, “Ikusi mendizaleak” abestia kantatu, inguruko mendietako parte

hartzaileak agurtu...

- Izen ematea: 650tontor.sare.eus
- Deitzailea: Sare.

Urriak 24, larunbata

- 17:00 Manifestazioa Donostian Antigua auzoko tuneletik

salbuespen legediaren aurka, konponbidearen alde. “Resolution” hitzarekin mosaiko erraldoia osatu nahi da Kontxako hondartzan.

- Deitzailea: Sare.

“Aginagako festekin modu arduratsu batean aurrera egiteko erabakia hartu dugu”

San Praixkuak badatoz bueltan aurrean ere, bizi dugun osasun krisialdira egokituta. “Egoera aztertu ostean, jasaten ari garen osasun krisialdiarekiko erantzukizun eta ardura osoz, gure ibilbideari etenik ez emateko eta festekin modu arduratsu batean aurrera egiteko erabakia hartu dugu”, adierazi dute Aginagako Jai Batzordetik.

Haur nahiz helduentzako hiru ekitaldi antolatuta dituzte urriko lehen astebururako. Osasun eta segurtasun neurri zorrotzen artean ospatu asmo dituzte festak baina “ez dira ohiko jaiak izango” ohartarazi dute. Uztailean zehar, besteak beste Aginagan ere ospatu zen Kultur Biraren ereduarekin erreferentzia gisa hartuta, hitzorduak antolatzeke “protokolo zorrotza landu dugu”. Batetik, aforo mugatua izango dute ekitaldiek. Sarrerak aurrez eskuratu beharko dira usurbilkultura.eus atarian. Bertan izena eman



Urriaren 2an ostirala, ‘Ene kantak’ haurrentzako ikuskizuna Aginagako frontoian.

AGINAGAKO JAI BATZORDEA

Neurri zorrotzen artean ospatu asmo dituzte festak baina ohartarazi dutenez, “ez dira ohiko jaiak izango”

eta antolakuntzak zozketatuko ditu. Emailez jakinaraziko dute bi egun lehenago, sarrerak eskatu dituenari txartelik egokitu zaion edo ez. Sarrera kopuru

jakin bat aginagarrentzako erreserbatua egongo da, hauek Arrate Tabernan eskuratu ahal-ko dira.

“San Praixkuak arduraz eta neurri ospatzeko aldarria egiten dugu. Aurtengoan, orain arteko ibilbidea eskertu eta gure jarduna hauspotzeko deia zabaltzen dizuegu, etorkizuneko Agiña osatzen jarraitzeko, guztien bultzada behar baitugu!”, adierazi dute Jai Batzordeko kideek.

Urriak 2, ostirala

■ 18:00 Ene Kantak Ariztitxo frontoian.

Urriak 3, larunbata

■ 18:00 Ameba eta Unidad Alavesa rock taldeak Ariztitxo frontoian.

Urriak 4, igandea:

San Praixku Eguna

■ 11:00 Meza nagusia.

■ 12:00 Herri kirol erakustaldia Ariztitxo frontoian:

-Harrijasotzaileak: Jokin Eizmendi, Imanol Illarramendi “Kortaberri”, Gorka Etxeberria eta Udane Ostolaza (15 urte).

-Aizkolariak: Iñaki Azurmendi eta Xabier Zaldia.

-Hizlariak: Joseba Ostolaza eta Manuel Mari Galarraga.

-Agiñarrak ere kirolean: Trontzan, txingetan eta lokotx bilketan ere izango ditugu.

■ Ekitaldiotarako sarrerak: usurbilkultura.eus

■ Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

noaia.eus

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...

Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

Maidar Makazaga, DYAko gerentea: “Pandemiak eragin zuzena izan du gure eguneroko martxan”

Zer da DYA? Errepideetan sorospen lanetan aritzen den taldea. Hori izango da askori burura datorkigun lehen erantzuna. Gauzak asko aldatu dira ordea. Azken urteotan, nagusiki arlo sozialean ari dira lanean. Osasun alarma piztu zenetik hona, areagotu egin zaizkie zeregin horiek.

NOAUA! Getariatik zatoz une honetan. Zertan aritu zarete?

Maidar Makazaga, DYA. Txakolinaren mahats-bilketan lan egin behar dutenei PCR probak egiten aritu gara. Bilketa kanpainarekin hasi aurretik, denak garbi daudela bermatzeko. Guztira 550 bat proba egingo ditugu gaur. Horretaz gain, helduen egoitzetan ere probak egiten gabilta, Gipuzkoa osoan zehar.

Krisi honek zuen lan dinamika goitik behera aldatu du hortaz.

Erabat. Eragin zuzena izan du gure eguneroko jardunean. Osasun alerta ezarri zenean, eguneroko martxan egiten genituen zerbitzuak bertan behera utzi behar izan genituen. Kirol partida, kontzertu eta abarren zaintzak, aiton-amonen irteerak... Zerbitzu ia denak. Topera lanean arizetik ezer ez egitera pasa ginen egun batetik bestera, nolabait esatearren. Lehen kolpe horrek bertigoa eragin zigun. Ohiko lanak ezin egin eta, gu zertan izan gaitezke lagungarri? Kezka hori berehala sortu zitzaigun.



“Osasun alerta ezarri zenean, zerbitzu asko bertan behera utzi behar izan genituen”.

PANDEMIAREN HASIERAN

“Ehundik gorako boluntario talde bat osatu genuen. Erosketak egiten laguntzeko taldeak eratu genituen eta desinfekzio lanetan hasi ginen”

Boluntario talde zabala duzue. Dena den, konfinamenduak herritik ez ateratzeko neurria ekarri zuen berarekin.

Osasun alerta ezarri eta boluntarioak berehala hasi ziren deika. “Zertan lagundu dezakegu? Zein da plana?”, galdezka. Gure lehen erabakia hau izan zen: denak etxean. Zaindu zaitezte, ez zaitezte kutsatzeko arriskuan jarri. Beharra suertatzen denean, hortxe egon behar harko dugulako. Anbulantziak

eta bitarteko guztiak prest genituen, beharra sortuko balitz horiekin laguntzeko.

Lehen aste hori izugarri gogorra izan zen. Jendea laguntzeko prest zegoen, deika genituen eta gu fretoa jartzen: “lasai egon, oraindik ez delako beharrik sortu”. Lehen egun horietan, jendeak oraindik elikagaiak bazituen etxean, sendagaiak ere bai... Astebetera hasi ziren behar horiek sortzen.

Oker ez banago, sendagaien zein elikagaien bilketa eta banaketa lanak egiteko sare bat osatu zenuten, ezta?

Sarea osatuta zegoen berez. Gipuzkoa osoan zabaltzen da DYAren sarea. Egoitza zentrala Donostian dago eta hortik koordinatzen da dena. Eta herri

askotan egoitzak ditugu, Usurbilen bezalaxe. Bazkide guztiei mezu bana bidali genien alerta egoera ezarri zutela esanez eta gure ohiko zerbitzuak bertan behera utzi behar izan genituela jakinaraziz. Baina sor zitezkeen behar berrien aurrean, jakin nahi genuela nor zegoen laguntzeko prest.

Eta? Nolako izan zen boluntarioen erantzuna?

Oso ona. Ehundik gorako boluntario talde bat osatu genuen. Batetik, erosketak egiten laguntzeko taldeak antolatu genituen eta, bestetik, desinfekzio lanetan hasi ginen. Gure koordinazio gunea indartu egin genuen jende gehiago jarriaz, jasotzen ari ginen dei guztiei erantzun ahal izateko...

“100dik gora egoitza desinfektatuko genituen”

NOAUA! Zahar egoitzak eta toki publikoak desinfektatzen aritu zarete hilabeteotan.

Maidar Makazaga, DYA. 100dik gora egoitza desinfektatuko genituen. Suhiltzaileak hasi ziren horretan baina ez ziren dena

iristen, eta laguntza eskatu ondoren, guk ere desinfekzio lanei ekin genien.

Zeregin gehiagotan ere aritu gara. Eusko Jaurlaritzari sortu zitzaion beste behar bat. Lehen aste haietan, gaixo kroni-

koek ezin zuten etxetik atera; ez zen gomendagarria. Horiei medikazioa nola helarazi etxera? Hor sortu zen behar bat eta zerbitzu hori eskaintzen hasi ginen. Farmazietara joan, sendagaiak hartu eta gaixoen

etxeetara eramaten. 15.000 telefono deitik gora egin genituen hori dena bideratzeko. Lan horretan elkarrekin aritu ginen Eusko Jaurlaritzako Farmazia Zuzendaritza, Farmazialarien Elkargoa eta gu.

“Arlo sozialean zeregin handia dago, errepidean baino handiagoa seguraski”

NOAUA! Diru-bilketa kanpaina bat abiarazi duzue egunotan: Alerta Horia. Eta DYArri nork laguntzen dio?

Maidier Makazaga, DYA. Gure finantziarioa, hein handi batean, kolaboratzaileei esker ziurtatuta dago. Euren ekarpenei esker gure aurrekontuaren zati garrantzitsu bat osatzeko moduan gara, baina ez guztia.

Martxoaren erdialdean ohiko zerbitzu denak bertan behera geratu zirenean, kezkatzen hasi ginen. Zerbitzu horiek dira guk fakturatzen ditugun bakarrak. Gure filosofia da “presazkoak ez diren lan horiek kobratzea, larrialdikoak direnak doan egin ahal izateko”. Kontzertuak, kultur jarduerak, kirol jarduerak... Horrelakoe-tan antolaketa bat egoten da, sarritan dirulaguntzak dituzte edo sarrera kobratzen da... Eta kasu horietan, eskaintzen dugun zerbitzuarengatik kobratu egiten dugu.

Bestetik, konfinamendua ezarri zenetik materiala utzi diogu Osakidetzari. Material jakin baten falta izan zuten eta guk gure biltegian genuena musu-truk eman genien. Guk orain nahi duguna da material hori berreskuratu, biltegia



“Jendeak uste du Administrazioak lagundutako Gobernu Kanpoko Erakunde bat garela baina ez da horrela, inondik inora ere ez”, azaldu digu Makazagak.

DIRU-BILKETA KANPAINA

Errazena da DYAk telefono zenbakira deitzea: 943 46 46 22. Eta deitzean esan dezala ekarpen bat egin nahi duela”

bete berriro. Ez baitakigu zer nolako beharrak etorriko diren gero. Ez dugu besterik eska-

tzen.

Kanpaina hau beraz, hortik doa. Jendeak uste du Administrazioak lagundutako Gobernu Kanpoko Erakunde bat garela baina ez da horrela, inondik inora ere ez. Udaletxe batzuetatik dirulaguntza txiki batzuk jasotzen ditugu baina zerbitzu truke izaten dira, Jaurilaritzatik eta Aldunditik ere bai beste batzuk, baina

ezer gutxi. Nik uste herritarrak beti ikusi duela DYA han eta hemen baina ez du kuestionatzen nola finantzatzen den. Eta agian galdera egin behar luke.

DYAre etorkizuna kinka larrian ikusi al duzue hilabeteotan?

Bai, eta oraindik ere horrela ikusten dugu. Hala ere, denari ikusi behar zaio bere alde positiboa. Eta agian une hau aprobetxatu behar dugu DYAk zer bestelako gauzetan lagundu dezakeen hausnartzeko. Arlo sozialean zeregin handia dago eta uste dut horretan izan genezakeela lekua, seguraski errepidean baino gehiago.

Bere momentuan errepidean premia zegoelako osatu zen DYA. Une honetan, Administrazioak errepideko beharrak asetzeko anbulantzia sarea osatuta dauka hein handi batean. Eta sorreratik DYAre izpiritua beharra dagoen lekuan egotea denez, akaso DYAre zereginak beste arlo batzuetara zabaltzeko unea iritsi da.

Edozein kasutan, boluntario talde sendoa dagoen bitartean, eta hau da DYAk duen altxorrik preziatuena, urrutira iritsi gitezke.

DYAkoko ekarpen ekonomikoen premian dira

NOAUA! DYArri lagundu nahi dionak zer egin dezake?

Maidier Makazaga, DYA. Errazena da 943 46 46 22 telefono zenbakira deitzea. DYAk telefonoa da hori, 24 orduz zerbitzuan dagoena, eta deitzean esan dezala ekarpen bat egin nahi duela. Ekarpene ekonomiko hori puntuala izan daiteke edo maiztasun jakin batekin. Ez dugu minimo bat jartzen,

norberak erabakitzen du nola lagundu nahi duen.

Beste bide bat izan daiteke dyagipuzkoa.com web orrialdearen bidez egitea. Bertan, Eman laguntza gure proiektuari izeneko atala dago eta bertan datuak sartuaz egin daiteke ekarpena.

Eta beste aukera bat da Bizum bidez ekarpena egitea, 38071 identifikatzailea erabiltzaz.



DYAkoko Usurbilgo Kultur Biran izan ziren, zaintza-lanak egiten.

“Faltan bota dut koordinazio mahai bat”

NOAUA! Birusak kutsatutakoei eta euren ingurukoei jarraipena egiteko aztarnariak jarri dituzte lanean. Ez al zaizue horrelakorik egitea egokitu?

Maidar Makazaga, DYA. Ez. Guri lan horretarako ez zaigu laguntza eskatu. Eta jakin nuenean erizainak ari zirela jarraipen hori egiten, erabat harrituta geratu nintzen. Nola da posible? Nahikoa lan badute bestela ere. Eta gaitetik aztarnari lanetan ari dira? Nire ustez, askoz eragingarriagoa litzateke auxiliarrerekin edo beste administrari batzuekin egitea. Eta nire ustez, horretarako jendea topatzea ez litzateke lan zaila.

Nire ustetan horrelako egoerak eman dira koordinazio mahai bat egon ez delako. Balorazio bat egitea eskatuko balidate, esango nukeen lehen gauza hori litzateke, faltan bota dugula nolabaiteko koordinazio mahai bat, eragile ezberdinak batuko gintuen mahai bat.

Instituzio mailan ari zara?

Batik bat, beraien esku zegoelako edo dagoelako egoeraren kudeaketa. Talde ezberdinak ari



PCR probak egiten dituzte han eta hemen. Irudia Getarikoa da. Argazkia: DYA.

MAIDER MAKAZAGA

“Egia da hau dena berria izan dela denontzat, eta zaila izaten ari dela egoera kudeatzea”

gara lanean eta denon beharra egon da. Baina ez da koordinazio mahai orokorrik sortu eta uste dut horrek asko erraztuko zuela premiak errazago identifikatzea eta irtenbideak bideratzea, sarean lan eginez.

Gauzak beste modu batean egin zitezkeen akaso?

Ez da kritika bat, ezta gutxiagore ere, denontzat egoera berria

delako eta zaila behar duelako izan lehen lerroan egotea. Koordinazio lana faltan bota dudala esan dut eta azalduko dizut zergatik diodan hau. Pandemian zehar egin ditugun zerbitzu asko elkarrizketa informal batzuen ondorioz suertatu dira. Adibide bat jartzearren: Elikagaien Bankuak biltegiak jakiz beteak zituen baina elikagaiak batetik bestera mugitzen dituen jendea, kasu askotan, jende heldua izan ohi da. Konfinamendua iritsi zenean, horietako pertsona asko eta asko etxean geratu ziren. Ondorioz, janaria biltegian zegoen eta janari horren beharra zuten herritarrak

janari premian. Zain.

Eta egoera horren berri kasualitatez izan zenutela diozu?

Elkarriketa informal batean atera zen eta halaxe esan nien, “ba guk egin genezake lan hori. Esan nondik nora eraman behar den janaria eta horretan jarriko gara”. Eta horrela hasi ginen Elikagaien Bankuarekin elkarlanean. Horregatik diot, koordinazio mahai hori osaturik balego, akaso lehenago hasiko ginateke horretan lanean eta beharra zuen jende hori ez zen jakirik gabe egongo.

Behar asko detektatu ditugu horrela, elkarrizketa informalean. PCR probekin antzeko gertatu zen. Arrantzaleek premia zuten itsasora atera aurretik PCR probak egiteko, eta Hondarribia, Pasaia eta Getariako arrantzaleekin gu hasi ginen probak egiten. Egia da hau dena berria izan dela denontzat, eta zaila izaten ari dela egoera kudeatzea.

Denak ikasten ari gara. Instituzioak eta herritarrak.

Hori da.

Pelaioenea barrualdeari forma emateko garaia

Etorkizunean Pelaioenean kokatuko diren Emakumeen Etxea eta auzotarren ekipamendua definitzeko parte hartze prozesu bana abiatuko da urrian. Xehetasunak hilaren 19an aurkeztu zituzten eraikin atarian, Usurbilgo Udalak eta prozesuon dinamizatze lanak bideratuko dituen Elhuyarrek.

Apuntatu zuen agendan, egunotan abiatuko dira bi parte hartze prozesuak:

■ Urriak 8, 18:00 Emakumeen Etxearena.

■ Urriak 15, 18:00 Auzo ekipamenduarena.

Xehetasun gehiago datoren astekarian.



Pelaioenea biziberritzeko partehartze prozesuak irailaren 19an aurkeztu zituzten.

“Orain gure txanda iritsi da”

Harrotu eta erein” leloari gorazarre egin zioten irailaren 19an frontoian ospatu ziren Usurbilgo topaketa feministek. Ira- gan larunbata beste “egun bat gehiago” izan ez dela nabarmendu zuten parte hartzaileek amaierako mobilizazioan.

“Hau ilusio handiarekin azken hilabeteen sortu dugun proiektua kalera ekarri dugun lehen eguna da, eta harekin batera, gu ere kalean izango gara. Inurriak bezala, egunerokoan lanean eta borrokan jarraituko dugu, esparruak geureganatzen eta askatzen. Mila aldiz esan duguna errepikatuz, kaleak geureak dira, eta hori erakustera gatoz”. Hau ez da mugimendu feministaren “aktibazio koiuntural bat, hau belaunaldiz belaunaldi emakumeek* aurrera eramaten duten prozesuaren jarraipena da. Orain gure txanda iritsi da, gure gizartearen oinarria harrotu eta behar dugun aldaketarako hazia ereiteko”. Egunero zapaltzen duen sistema



Eskualdean saretzeko xedez, topaketa feministak egin ziren pasa den larunbatean Usurbilen.

“HARROTU ETA EREIN”

“Eskualdea saretzeko proiektuan laster aurrerapauso gehiago emateko aukera” izatea espero dute

heteropatriarkal kapitalistari “egunerokoan egingo diogu aurre”.

Saretzea helburu

Eskualdean saretzeko topaketa feministak izan ziren larunbatekoak Usurbilen eta egunotan Andoainen, Lasarte-Orian eta Hernanin ospatekoak zirenak, tokian tokiko mugimendu fe-

ministak antolatuta. “Herrika neska* gazteen saretzeak indartsu egiten gaituen moduan, eskualde mailan harreman- tzeak gure indarrak biderkatuko zituela ikusi genuen”. Tokian-tokiko aurrelanketa bat ere bideratu zuten hitzorduon aurretik, baina osasun krisialdia tarteko “ezinezkoa ikusi dugu eskualde mailako topaketa hauen proiektuarekin jarraitzea”.

Alternatiba bat eskaintzeko beharra ikusi zuten, eta hala, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbilen herri mailako topaketa feministak deitzea erabaki zuten. Norbe-

rak bere egitaraua landu duen arren, eskualde mailan hartuemanetan izan dira. Eskualde mailako saretzea sustatzeko “hainbat elementu amankomun” txertatzea erabaki zuten, “Harrotu eta erein” leloa, lelo hau islatzen zuen kamiseten serigrafia tailerra edota oka feministarekin hasitako topaketen amaiera ekitaldian plazaratu zuten adierazpena. “Eskualdea saretzeko proiektuan laster aurrerapauso gehiago emateko aukera” izatea espero dute, “denon arteko elkartasuna baita mugimendu feministaren iparrorratz eta indargune nagusia”.



“Denon arteko elkartasuna da mugimendu feministaren iparrorratz eta indargune nagusia”.



Irudi engainariak

Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Bilatu

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

G		T	I		E
			P		T
O		I		P	
			E		
		P			
I	O	E	G		P

Sudokua

Konturatuko zinenez, orriotako jolas guztiek Antzinako Egipton daude girotuta. Osa ezazu sudokua EGIPTO hitzak dituen hizkiekin (E, G, I, P, T eta O). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden




aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.

11+1



Mezua

Alfabetoari erreparatuz,
asmatu zer dioen
papiroak.



Margotu


Handitik txikira

Ordena itzazu katuok, handienetik (1) txikienera (5)



Labirintoa

Aurki ezazu momiaren
sarkofagora iristeko
bidea, gezi beltzetik
abiatuta.



Marraztu

Horra! Momia gaixoa erdizka
marraztuta dago.
Osa ezazu, mesedez.



Eneko Furundarena Maiz: “Uste baino lehenago bete nuen ametsa”

Eskola Kirolaren garaitik ibilbide ezin oparoa-goia jorratu duen Eneko Furundarena Maiz gaztearekin bildu da NOAUA!, Asobal ligan 17 urterekin jokatzeko hasia berria den honetan.

NOAUA! Estreinaldi ezin bo-robilagoa izan duzu Asobal ligan; errekor-errekordun emaitza, estreinako parte hartzea gol eta guzti.

Eneko Furundarena Maiz: Bai, sentsazio nahasketa handia izan nuen. Partida hasieran urduritasuna eta beldur pixka bat. Hasieran taldea aulkitik animatzen. Emaitza dezente txukuna ari ginen ateratzen. Azkeneko 10 minututan jokatzera atera eta lehen jokaldian gola sartzeko aukera izan nuen. Orduan oso pozik.

Galizian jokatu arren, hurbil izan zenituen ingurukoak. Haiengandik jaso zenuen argazkia da horren lekuko.

Ez nuen espero. Usurbilgo jendea eta nire lagunak ikustea hor niri laguntzen, nahiz eta hemen ez jokatu gertu, oso



Eneko Furundarena usurbildar gaztea Bidasoa Irun eskubaloit taldeko jokalaria da.

LEHEN PARTIDA ASOBALAN

“Azkeneko 10 minututan jokatzera atera eta lehen jokaldian gola sartzeko aukera izan nuen”

hunkigarria izan zen. Eskertu nien gero.

17 urterekin heldu zara Asobal ligara.

Usurbilen infantil mailan nengibilela, Bidasoako klubak nire ingurukoekin kontaktatu zuen. Jubenilen lehen urtean hara joatea edo Usurbilen jokatu eta haiekin astean bitan entrenatzea eskaini zidaten. Bigarren aukera horren alde egitea

erabaki genuen. Irunen entrenatzen hasi nintzen, taldeko dinamikan murgiltzen joateko. Aurreneboraldian parte hartzen hasi nintzen. Hainbat lesio eta zirkunstanzientzatik Asobaleko lehenengo partidara konbokatuta joateko aukera izan nuen. Uste baino lehenago bete nuen ametsa.

“Hemen jokalariai zaindu egiten dira”

NOAUA! Zure ibilbide oparo eta goiztiarrak ikastola garaian du jatorria ezta?

Eneko Furundarena Maiz: LH5. mailan Eskola Kirolean hasi nintzen. Futboleko urte erdia eta urte erdia pilota egiten genuen. Gero deskubritu nuen eskubaloia. Moldatzen nintzen eta gustuko nuela ikusten nuen. Azkenean futbola eta eskubaloien artean, eskubaloien aldera jo nuen. Jokaldia behintzat ondo atera zait.

Oso goiztiar, baita selek-

zioarekin ere.

Hemen klubean jokatzeko hasi eta Gipuzkoa nahiz Euskadiko selekzioek hasiera batean entrenamendu batera joateko ikusi eta aukeratzen zaituzte. Hautatuak garrantzitsuagoak diren txapelketetara joaten dira. Ibilbide polita izan dut selekzioarekin. Lagun asko egiten dira. Oso esperientzia aberasgarriak dira.

Hain ibilbide oparoa izanda 17 urterekin, erronka nagusiak bete dituzu jada?

Erronka nagusiak bete ditut. Dena jokatu ahal izan dut bai Usurbilekin eta baita selekzioarekin ere. Espainiako absolutua izango litzateke anbizioz jokatzeko geratzen zaidana. Baina gustura nago nagoen tokian eta ez nago aurrera begira.

Usurbilen eta Irunen aldi berean. Erraza al da aldi berean bi klubetan egotea?

Dena argi utzi genuen eta klubaren artean oso harreman ona dago. Usurbilen hobeto pasa-

tze aldera jokatzeko nuen eta Irunen profesional gisa hobetzeko. Bietan oso gustura.

Zer du Usurbilek hainbeste jokalaria ezagunen harrobi izateko?

Zer duen esatea zaila da, baina hainbeste jokalaria atera badira zerbaitekin egongo dute ondo. Hemen jokalariai zaindu egiten dira. Usurbilen prozesuan asko hobetu ordez, lagunekin ondo pasa behar da, eskubaloiaz gozatu eta ahal bada irabazi.

“Lagun piloa eta bidaiatzeko aukera asko eskaini dizkit eskubaloiak”

NOAUA! Koronabirusak nola eragin du zuen jardunean?

Eneko Furundarena Maiz: Martxoan partida bat jokatu, Asobal liga bertan behera utzi eta lehen itzuliko sailkapena mantentzea erabaki zuten. Entrenamenduak gelditu eta aurtengo aurrendenboraldira arte ez dute ezer egin eta Usurbilen ere berdin. Denboraldi bukaera jokatu behar genuen eta pandemiagatik bertan behera geratu zen. Orain Asobal ligan, profesionalak izateagatik abantaila batzuk ditugu, kontrolak eta partida aurretik beti probak egin behar ditugu. Pandemiak denoi eragin digu eta orain pixka bat buelta ematen ari gara.

Nola aurreikusten duzu denboraldia?

Ezin ezer aurreikusi. Taldean positibo bat egonez gero, talde osoa etxeratu eta lehiaketa eten beharra izango da. Irunen aurreko denboraldietan ilusio handia sortu da eta jende asko joaten zen. Orain jende



Debuta Galizian egin zuenez, lagunek argazki honen bidez bidali zizkioten animoak.

HELBURUAK

“Aukerak aprobetxatu, Asobal ligan beste partidaren bat jokatzeko aukera badut gozatu eta lanean gogor jarraitzea”

gutxiago baina jokatzeko gogo handia dago. Gure erronka nagusia Europara begiratu eta

sailkapeneko goialdetik ahalik eta gertuen geratzea. Bartzelona talde garaiezina dela jakinda, helburua beti bigarren postua da.

Zer eman dizu eskubaloiak orain arte?

Esperientzia asko, bizitzeko hainbat balore irakatsi dizkit eta bizitzeko motibazio bat

ere bai. Batez ere lagun piloa eman dit. Bidaiatzeko aukera asko.

Zer espero duzu ibilbide hone-tatik?

Sortzen zaizkidan aukerak aprobetxatu, Asobal ligan beste partidaren bat jokatzeko aukera badut gozatu eta lanean gogor jarraitzea.

Ezezagunek Goiaran baserriko gobaralekua txikitu dute

Goiaran baserria Zubietan aurkitzen da, Araeta jatetxetik ez oso urruti. Gaur egun bi etxebizitza ditu baserriak. Gobaraleku edo garbitoki zahar bat du, aska bezala ere erabili izan dena. Aurreko astean txikitu egin zuten. Goiaranen bizi den bizilagun batek igorri dizkigu argazkiak.

Ondarearen aurkako eraso

Baserrietan, apenas erabiltzen diren arren, gobaraleku asko mantendu dira. Tartean, Zubietako Goiaranekoa. Usurbilgo ondarea ezagutzen liburuan ere badator garbitoki honen erreferentzia.



Garbitoki nahiz aska bezala erabiltzen zen garai batean. Argazkian ikus daitekeen bezala, kalteak handiak dira.

“Sagardoak Elkartzan Gaitu” kanpainarekin bat egin dute Patri eta Txiriboga tabernek

Sagardoa dastatu ahal izateko, funtsezko plaza da ostalaritzak eskaintzen duena. Hori dela eta, ilusioa eta lanerako gogoia batu dituzte Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak. “Urteak dira Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak elkarrekin lan egiten dugula, izan promozio kanpainetarako, ekitaldien antolakuntzarako, edo aurtengo kasuan bezala, Covid-19aren aurrean protokoloak lantzeko”, Sagardogileen Elkarteak aditzera eman dutenez.



Sagardoa dastatu ahal izateko funtsezko plaza da ostalaritzak eskaintzen duena.

Elkarlan honen adierazgarri da hizpide hartu dugun kanpaina: “Sagardoak elkartzan gaitu”. Gipuzkoako 40 ostalari batu dira, tartean, Usurbilgo Patri eta Txiriboga. Euskal Sagardoa jatorri deitua botila kontsumitzen duen bezeroak hainbat sari eskuratzeko aukera izango du.

OPARIAK BEZEROENTZAT

“Oparien artean dira kamisetak, edalontziak, deskontu baleak, kortxo-kentzekoak eta sagardo-kopak”

Aurreko astean hasi zen kanpaina eta irailaren 26ra bi-

tarte luzatuko da.

Kanpainaren xehetasunak

Bezeroek, euskal sagardo botila eskatzen dutenean, txartel-txoak jasoko dituzte. Txartel horietan saririk baden begiratu beharko dute lehenengo, eta edozein kasutan, saritua bada edo ez bada, “beren

emaila utzi eta kutxan sartuta bezero guztiek jasoko dute sari edo opari bat beren emailan. Oparien artean daude icebag-ak, kamisetak, edalontziak, deskontu baleak, kortxo-kentzekoak edota sagardoa dastatzeko kopak”, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak azaldu dutenez.

“Sagardotegietan bisita gidatuak egiteko garai proposa da”

Sagar uzta batu eta sagardo berria egiten hasteko garaia iritsi da. Sagardotegi askotan egunotan hasiko dira ekoizpen lanetan. “Aurtengo uzta iazkoa baino txikiago espero dugu kopuruz, baina kalitate handikoa”, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak adierazi dutenez.

“Garai hau urteko sasoi politena da sagardotegietan bisita gidatuak egiteko”. Bertan sagardoa nola egiten duten ikusteaz gain, prozesu osoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan ohi da. “Bisita sagardotegietan otordua eginez borobildu daiteke gainera eta



Sagardotegi askotan egunotan hasiko dira ekoizpen lanetan.

nahi duenak, asteburu pasa ere egin ahal izango du gure landa-hoteletan”. Honen inguruko aukera eta informazio gehiago www.sagardoa.eus web orrial-

dean topatuko duzue.

Protokoloa betez

Sagardotegiak momentu honetan egungo segurtasun irizpi-

deak jarraituz ari dira kanpaina hasiera prestatzen. Sagar bilketa lanak hasi dituzte batzuk eta laster hasiko dituzte gainerakoek.

2020ko Euskal Sagardoa

Egun hauetan hornitzaileak hasiko dira sagarra ekartzen. Hauek garbitu, jo eta tola-rean zanpatuko dira. “Ziklo bakoitzaren ondoren ateratzen den muztioa joango da kupeletara, irakinaldia has dadin. Hala, 2020ko uzta berria urtarilla aldera dastatu ahal izango dugu txotxean, eta udaberritik aurrera izango dira botilan 2020ko uztako lehen Euskal Sagardoak”.

“Kopuruz sagar uzta txikiagoa eta izaera handikoa izango da aurtengoa”

Euskal Sagardoa Jatorri Deiturarako sagar bilketa hasi da Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako hainbat sagastietan. Datozen asteetan bildu beharko da uzta guztia. Sagar motak, zonaldeak, heldutasun puntuak eta sagardogileen gus-tuek zehaztuko dute tokian to-kiko sagardo berria.

Azken urtekoarekin alderatuta, uzta txikiagoa izango da aurtengoa, “eta hala ikusi lite-ke sagastirik gehienetan. Iazko uztan 5 milioi kilotik gora sa-gar bildu zen Jatorri Deiturako sagastietan eta, aurtén, %50 baino gutxiago biltzea” aurrei-kusi du Euskal Sagardoa Jato-rrri Deiturak. Bi faktore nagusi dira hori eragin dutenak:

Ez-urtea egokitu da

Normalean sagarrak bi urtez behin izaten du uzta oparoa, eta teknikoki hori gainditzen ari bada ere, oraindik ez-urtea denean asko nabaritzen da. “Sektorea profesionalizatu eta teknika berriak garatu eta pro-batzea da Euskal Sagardoa Ja-torri Deituraren erronka”, uzta orekatuagoak lortzeko.

Hotz gutxi egin du neguan

Sagarrak neguan deskantsua



Artikulu honetan batu ditugun datuak aurreko astean eman zituzten ezagutzera.

EUSKAL SAGARDOA JATORRI DEITURA

**“Iaz 5 milioi kilotik gora
sagar bildu zen.
Aurtén %50 gutxiago
biltzea aurreikusi da”**

behar du eta horretarako ezin-
bestekoa du hotz ordu batzuk
pilatzea. “Joandako negua ez
da hotza izan eta tenperaturak
gorabehera handiak izan ditu
gainera. Horrek sagarrondoe-

tako loraldian eragin du eta ez
dute fruta asko hartu arbolek”.
Euskal Sagardoa Jatorri Deitu-
raren esanetan, “uzta txikia-
goa izateak badu bere alderdi
ona, izaera handikoa datorrela.
Polifenol edo taninoetan ondo
hornitutako uzta izango da
2020ko hau sagasti gehienetan,
eta horrek sagardoan ere era-
gingo du”.

Sagar mota nagusiak

Hauek dira Euskal Sagardoa

Jatorri Deituran erabiltzen
diren 24 sagar mota nagusi-
ak:

■ Garratzak (gaziak): Erzezi-
la, Goikoetxe, Txalaka, Urte-
bi haundi, Frantzes sagarra,
Bostkantoi, Haritza, Azpeiti
sagarra, Manttoni, Ibarra.

■ Gezak: Gezamiña, Urdin,
Mozoloa, Patzulua, Mikatza,
Udare marroi, Txori sagarra.

■ Gazi-gezak: Moko, Limoi,
Merabi, Mokote, Urtebete, Ur-
tebi txiki, Saltxipi.

Helburua, bertako sagarraren ekoizpena handitzea

Euskal Sagardoaren baitan
250 sagar ekoizle daude eta
475 hektarea inguru sagasti.
Sagar hau guztia jatorri dei-
turadun 48 sagardotegietara
joaten da, Euskal Sagardoa
ekotzi dezaten.

Sagasti hauetan zuhaitz za-
harrak eta berriak daude eta
100 hektarea gehiago batuko
dira datozen urteetan. Sagas-
ti berri gehienak Gipuzkoako

lurraldean jarri dira, Foru Al-
dundiak emandako laguntza-
renpean gehienak. Bizkaian
eta Araban urriagoak izan dira
sagasti landaketak.

Sagasti berrien garrantzia

Bide horretan, sagasti berriak
jartzeko ahaleginak eta konpro-
misoak berretsi dituzte sekto-
reak eta Foru Aldundiek. Sagar
sektoreak profesionalizatzen

jarrai dezan eta kalitatezko uzta
orekatuak lor daitezen.

Euskal Sagardoa bultzatzeko
xedez pauso handiak eman dira
azken boladan, eta datozen ur-
teetan ere ezinbestekoa izango
da sagar sektoreak egiten duen
lana, kalitatea hobetu dadin
eta bertako sagarra ugaritu
dadin. Izan ere, sektoreak eta
administrazioek helburu gar-
bi bat zehaztu zuten Euskal



250 sagar ekoizle daude egun.

Sagardoa Jatorri Deitura sor-
tu zutenean: 15 urtean %100
bertako sagar hutsez egitea
hemengo sagardo guztia.

Ariguneen Euskaraldiarekin bat eginik

2018ko azaroan Ahobizi eta Belarriprest figuren eskutik euskararen erabilera areagotzeko banakako ariketa egin ostean, ariketa hau kolektibizatzea dator Euskaraldiaren 2. edizioa azaroan. Herriko kirol nahiz kultur taldeak, lantokiak, saltokiak, erakundeak... ariguneen bidez parte hartzeko izen ematea zabalik du Usurbilgo batzordeak. Bat egin dutenen artean dira Intza ile-apaindegia eta Santueneko Gure Elkartea.



Intza ileapaindegia eta Santueneko Gure Elkarteko tabernak Arigune gisa eman dute izena.



Intza ile-apaindegia

Euskaraldiarekin bat egitea erabaki du Kale Nagusiko ile-apaindegia “euskara laguntzeko, bultzada bat emateko”. Ariketa kolektibo hau ariguneen bidez gauzatuko da. Ile-apaindegian eguneroko jardun eta bizitzan, euskaraz bizi dira. “Lankideon artean euskaraz mintzatzen gara. Euskaraz dakienari eta euskaraz zuzentzen zaigunari hizkuntza berean hitz egiten diogu. Zorionez, hemen Usurbilen asko dira, bezero euskaldun asko dugu”, adierazi digute Intza ile-apaindegikoek.

Pozik helduko diote urte amaierako erronkari, “euskara lagundu eta bultzatzeko bada, ahal den gehiena” egiteko prest dira. Azken urteotan euskararen ezagutzak gora egin duen

ARIGUNEAK USURBILEN

Intza ile-apaindegia Euskaraldiarekin bat egin du “euskara laguntzeko, bultzada bat emateko”.

Santueneko Gure Elkarteko tabernariaren esanetan, “denon artean bultzatu behar dugu”

moduan, badirudi abiadura berean ez dela indartu erabilera. Euskaraldiak eragin dezake horretan. “Bultzada behar du”, hizkuntza ohiturei erreparatu beharko diegu. Garrantzitsua alde horretatik, herriko saltokietan sartzean ahotan hartzen dugun lehen hitza “euskaraz izatea”. Euskaraldiaren bigarren ediziorako izen emate kanpainarekin bat egitera animatzen dituzte entitateak.

Santueneko Gure Elkartea

Parte hartze bikoitza izan du Santueneko Gure Elkartea adinekoen bilguneko tabernak. Euskaraldia sustatzen herrian lanean dabilen batzordeko kidea da Ana Flores. “Gustuko gaia dut euskara, gure hizkuntza bultzatzea”, aipatu dio NOAA!ri. Lantokia duen tabernak ere urte amaieran ospatuko den 2. Euskaraldirako izena eman du entitate gisa. “Berez izan gara arigune bat gure familian. Beti euskaraz hitz egiten dugu, bezeroei gure lehenengo hitza beti izaten da euskaraz. Nola ez genuen parte hartuko Euskaraldian arigune bat gehiago bezala”.

Harremantzeko gunea izanda, taberna ezin gune egokiagotzat jotzen du Euskaraldiaren helburuak betetzen laguntzeko.

“Taberna batean jende asko mugitzen da eta aprobetxatu behar dugu justu horretarako, gure hizkuntza zabaltzeko”, adierazi digu Floresek. Santuenean eragiteko beharra ikusten du. “Egoera aldatzen saiatzen ari gara. Bagoaz lortzen. Haurrek eta gazteek badakite euskaraz, lehen ordea tabernetan ez zen ezer entzuten, orain bai. Gurekin harremana euskaraz da eta alde horretatik oso pozik gaude”.

Izaera kolektiboa izango duen 2. Euskaraldian parte hartzeko urratsa ematera animatzen dute Gure Elkartetik. “Lan gutxi da, ez zaigu ezer kostatzen gure inguruan, bezeroen, adiskideen eta senideen artean zabaltzea. Gure hizkuntza ari gara defendatzen, bultzatzen. Denon artean egin behar dugu”.

Ariguneen Euskaraldia

Noiz:

Azaroak 20-abenduaren 4.

Parte hartzeko moduak:

■ Norbanakoek: Ahobizi (lehen hitza euskaraz) edo Belarriprest (Ahobizien hizketari jarraipena ematea) gisa.

■ Entitateek: Ariguneen bidez.

Izen ematea:

Entitateena irailaren 27ra arte.

Ariguneen ezaugarriak

■ Denetarik entitateek parte hartu ahaliko dute: erakundeak, herri eragileak, elkar-
teek, denetarik kirol edota kultur taldeak...

■ Ariguneak = entitateen baitan dauden euskaraz aritzeko gune babestuak dira. Arigunea osatzen duten kide guztiek euskara ulertzeaz gain, euskaraz hitz egin nahi dutenekiko aldeotasuna adieraz-

ten dute.

■ Bi arigune mota sortuko dira: barne-ariguneak (entitateen barne funtzionamenduan euskararen erabilera babesteko sortutakoak) eta kanpo-ariguneak (herriarrekiko harrerarako edo kanpo harremanetarako sortuko direnak).

■ Entitateen ardura: ariguneak sustatu eta babesteko neurri praktikoak hartzea.

■ Ariguneek izena emateko, entitate bakoitzak “ariguneak non dituen identifikatu beharko du eta kideekin adostasuna hitzartu”.

Informazio gehiago

eta antolaketan

parte hartzeko izen ematea:

usurbil.euskaraldia.eus
usurbil@euskaraldia.eus
943 371 999

Txirristra: “Jendea ateratzeko gogoz zen eta gu ere bai”

NOAUA! Nola oroitzen duzu taberna ixteko martxoko agindua?

Doltza Begiristain Naldaiz: Ez nuen sinistu nahi. Esan zidatenean sukaldara sartu eta negar batean hasi nintzen. Baina errealitatea etorri zen azkenean. Beldurtuta.

Hiru hilabeteko itxialdiak nola eragin dizue?

Nituen aurrezkiak pikutara joan dira. Biltegiko izozkailua janariz betea nuen eta eskerrak horri. Elkargik atera zuen laguntza bat, eman zidaten baina bi hilabete pasa ondoren. Ondo etorri da laguntza taberna ireki eta gerorako, ze oraindik gastu guztiak ezin ditugu ordaindu tabernatik ateratzen denarekin.

Ireki zenutenetik hainbat neurrietara egokitu beharra tokatu zaizue.



“Nituen aurrezkiak pikutara joan dira”, azaldu digu Doltza Begiristainek.

DOLTZA BEGIRISTAIN

“Denon arteko konpromisoa ona da, horrek aurrera egiteko indarra ematen du”

Beldur askorekin ireki genuen, ia jendea nola etortzen zen. Jende gutxiago etortzen zen, ezin jende gehiago hartu, zuk lan bikoitza. Ordutegiagatik lankide denak atera behar izan nituen ERTE-tik. Hilabeteto-

tan salbatu gaituena eguraldia eta udalak terraza handitzeko emandako baimena izan da.

Nolako erantzuna jaso duzue bezeroen aldetik?

Ona izan da. Jendea ateratzeko gogoz zen eta gu ere bai.

Gertuago erosketa bonuen egitasmoarekin bat egiten duzue. Zergatik?

Gehienbat bezeroengatik, ez diru aldetik, baizik eta beze-

roak pozik izaten laguntzen du. Gusturago eta gehiagotan etortzen dira. Azkenik bien arteko oreka bat da.

Oreka hori mantendu behar hurrengo hilabeteetan. Nola aurreikusten duzu datorren udazken-negua?

Ez dut asko pentsatu nahi, bestela estutu egiten naiz. Gerora begira ere hartuko dituzten neurriekin pixka bat beldurtuta gaude. Usurbilen zorte handia izaten ari gara eta eskerrak. Ia neurri horiekin nola egiten dugun, ia ez diguten gehiago murrizten. Eguraldi txarrarekin terraza hori ezingo dugu mantendu. Barrua dagoen bezala dago, betetzen denean eta jendea eserita dagoenean ezin zaio gehiagori zerbitzatu, horrek asmo mugatzen du. Orain tolo bat jartzeko asmoa dut, horrek hiru mahai gehiago jartzeko aukera emango digu.

Antxeta: “Bonu-sistema asko gustatu zaigu”

NOAUA! Zer nolako hasiera izan duzue?

Iñigo Urruzola: Martxoan hasi behar genuen baina Covid19a tarteko ekaina bukaeran hasi ginen.

Bezeroen aldetik, zer harrera izan duzue?

Ekainean kosta zen pixka bat, gero uda nahiko ondo joan da. Egia da badela jendea oraindik beldurrarekin. Bada jendea lehen gehiago etortzen zena eta orain berriz etxean geratzen hasi direnak. Bestela orokorrean jendea ateratzeko gogotsu ikusten dugu.

Nola moldatu zarete araudi berrietara?

Momentuz ez da gehiegi nabarmendu gehienbat kanpoan lan egiten dugulako. Kanpoan hobeto mantentzen ditugu distantziak arazorik gabe. Baina orain negua datorrela, mahairen



“Ekainean kosta egin zen pixka bat, baina uda nahiko ondo joan da”.

IÑIGO URRUZOLA

“Egoera honekin bizi behar dugu une honetan, baina gozatzen jarraitu behar dugu”

bat kendu beharko dugula pentsatzen dut. Terraza kenduta, barruan ezingo dugu orain ar-

teko lan berdina egin, egoerara moldatu beharko dugu.

Moldatzeko zer beharko zenukete?

Terrazak beste modu batera itxi ahal izatea, kanpoan ere lan egin ahal izateko. Ez dakit erarik egongo litzatekeen karpark jarri eta bertan lan egin ahal izateko. Jangela nahiko

txikia da.

Udan jangelan lan egiten dugu kanpoko betetzen dugunean, hemen oso gutxi sartzen dira eta distantziak mantendu ahal ditzakegu. Baina jangelan gehienbat langileekin lan egiten dugu bazkalorduan. Horregatik ondo etorriko litzaziguke kanpoan terraza itxi ahal izateko zerbait izatea.

Gertuago, erosketa bonuen kanpaina; zer nolako harrera izaten ari da zuenean?

Badira bertako langile batzuk bonuak hartzen dituztenak, aste gutzirako egiten dute menua hemen. Koadrilei edo familiei ondo datorzkie. Koadrilla handi bat duzunean ondo daude bonuak, gehienbat bonu handiak behar ditugu. Bonu txikiek lan gehiago ematen dute apuntatzen eta gordetzen. Baina oso ideia ona dela uste dut eta guri gustatzen zaigu.

Asteazkenetako ibilaldiak, hausnarketara



Galdetegia osatuta, herriko txoko ezberdinetan ipini diren kutxetan utzi beharko da.

Covid19-ak ekarritako beste albo-kalte bat; martxoaz geroztik etenda daude 65 urtetik gorako herritarrek asteazkenetako herrian barrena egiten zituzten osteratxoak. Usurbilgo Udalak, jubilatutako elkarrekin batera sustatu izan duten “Usurbil, goazen kalera” egitasmoaz ari gara.

Adineko eta dibersitate funtzionalak dituzten herritarren bizi kalitatea hobetu eta ohitura osasuntsuak sustatzea helburu duen egitasmoak hiru urteko bidea osatu du. Baina bistan denez, ez du une gozoena bizi. Koronabirusaren ondorioz, etenda egon dira hilabeteotan 65 urtetik gorako herritarren kolektiboa asteazkenetako tipi-tapa herrian barrena, lagun arte giro ederrean soina mugiarazten zuen udal egitasmoa. Parte hartzeak ere beherantz egin duela ikusita, proiektuaz hausnartzeko tarte hartzea erabaki dute. Galdetegi bat kaleratu du

INKESTA

“Usurbil, goazen kalera” egitasmoaren norabidea definitzea da martxan jarri den galdetegiaren helburua

Usurbilgo Udalak, “beherakada honen arrazoiak eta iritziak ezagutuz ekimenari bultzada berri bat emateko asmoz, edo/eta herritarrok horrela eskatuz gero, ekimena bertan behera uztea nahi den jakiteko”.

Irailaren 25a baino lehen

Finean, “Usurbil, goazen kalera” egitasmoaren norabidea definitzea da galdetegi honen helburua. 65 urtetik gorako herritarrek egunotan jasotzekoa zuten aipatu galdetegiak. Berez, udaberrian bidaltzekoak ziren, “baina hori ere Covid19-ak garazi zuen: bai galdetegiaren bidalketa, bai ibilaldiak”. Ibilaldiek etenda segitzen dute, baina “galdeketaekin jarraitzea pentsatu dute, martxora

arte ibilaldien inguruko zein iritzi zuten jakiteko, eta Covid19-ren testuinguruan nola ikusten duten jakiteko. Izan ere, litekeena da kalera atera eta kutsatua izateko beldurrak ibilaldi horien parte hartzean eragina izatea”.

Galdetegi osatzeko gonbita luzatu dute. “Galdetegi honek duen garrantzia kontuan izanda, zure arrazoi, iritzi, zein eskaerak ezagutzeko helburuarekin, galdetegi osatzeko esfortzu berezi bat eskatzen dizugu”. Galdetegi osatuta, irailaren 25a baino lehen, guztiak egongo diren kutxetan utzi beharko da: adinekoen 3 elkarrekin (Usurbilgo Gure Pakea Elkartean, Santueneko Gure Elkartean edota Aginagako Arrate Elkartean), anbulatorioan edota udal erregistroan.

“Erantzunak jasotzekoan batoratuko dute, guztien artean, ekimenak zein bide har dezakeen aurrerantzean”, aurreikusitako Udalak.

Muxurbil antzerki taldea

Klaseak iragarri dituzte, haur, nerabe nahiz helduentzat. “Oraingoz larunbat goizetan”.

Informazio gehiagorako:

ixabel.agirresarobe@gmail.com
675 712 383

Esperientzia Eskola eta oroimen tailerra

Irailaren 25era arte doan eman ahalko da izena 50 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko Matia Institututak eta Udalak sustaturiko Esperientzia Eskolan, baita Udalak Lahar Elkargoarekin adinekoentzat bultzaturiko oroimen tailerrean ere. Gizarte Zerbitzuetako 943 377 110 telefono zenbakira deitu behar da. Urrian abiatuko dira saioak, covid19 garai honetara egokituta.

Tailerra, autoestima eta autozaintza

feministaren inguruan

Coral Herrerak bideratuko du (erdaraz), emakumeei zuzendua egongo den doako tailerra, irailaren 25ean (15:00-20:00) eta 26an (9:00-14:00). Tailer bera eskainiko da bi saioetan. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolatutako bi saioetarako taldea osatuko ez balitz, bakarrik egingo litzateke. Parte hartzeko aurrez izena eman: 943 377 110

parekidetasuna1@usurbil.eus

Patxi
Patriaren
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Futbol Eskola eta Eskola Kirola urrian jarriko da martxan

U surbil F.T.-k Futbol Eskola abian jartzeko prestaketa lanen egutegia plazaratu du:

■ Urriak 2, ostirala, 17:00 Potxoenean: guraso bilera. Bertaratu asmo dutenek deitu aurrez 688 62 10 07 telefono zenbakira.

■ Urriak 7 eta 9, asteazkena eta ostirala, 18:00-19:30 Haranen: izen ematea.

■ Urriak 23, ostirala: lehen entrenamendu saioak.

17:30-18:30, 2011-2012an jaio-takoak.

18:30-19:30, 2009-2010ean jaio-takoak.

Eskola Kirola, urritik aurrera

Usurbilgo kirol elkarteek, Udalak, Zirimara egitasmoa sustatzaileek, irailaren 14an Udarregi Ikastolan eginiko guraso bilere-



Futbol Eskolako guraso bilera urriaren 2an egingo da, arratsaldeko 17:00etan Potxoenean.

tan Eskola Kirola martxan jarriko dela baieztatu zuten, baina urrian eta bizi dugun osasun krisialdira egokituta. Besteak beste, entrenamendu saioetarako moldaketak egin beharko dituzte antolatzaileek, esaterako, "beste espazio batzuk erabili

beharra, gehieneko edukiera ez gainditzeko". Hilaren 5ean abiatuko dira bakarkako jarduerak, taldekakoak hilaren 19an. 12 urtera artekoen txapelketak oraingoz ez. Irailaren 22an ixtekoak ziren Eskola Kiroleko izen ematea.

Atxilotu bat marihuana plantazio bat atzeman ondoren

Espainiako Poliziak Donostiako bizilagun bat atxilotu zuen irailaren 11n, Usurbilgo industriaguneko pabilioi batean marihuana plantazio bat atzeman ostean. Haren ustezko arduraduntzat jo eta droga trafikoko delitu bat egotzi omen diote. Espainiako Poliziak sare sozialak zabaldukoaren arabera, instalakuntzako baliabideak epaitegien esku utzi dituzte; "37 transformagailu elektriko,

potentzia ezberdinetako 42 goritasun-lanpara, aire egokituko 4 aparailu eta 886 loreontzi-euskarri/mintegi".

Paper eske

Besteak beste, hilabete hasieran, Espainiako Poliziaren mugimendua sumatu zuten baita Aginagan. Lehendik ere hainbatetan egin izan duten moduan, piper ekoizleengana jo zuten paper eske.

Fokurik ez Usurbilen

Iragan astean whatsapp bidez zabaldu zen hainbat Covid19 kasu detektatu eta taberna bat itxi zela Usurbilen. Agurtzane Solaberrieta alkateak ohartarazi zuenez, "Usurbilen ez dago inolako fokurik". Une hartara arte agerturiko kasuak isolatuak zirela, elkarren arteko loturarik gabekoak. "Halako mezuak zabaldu aurretik zentzuz aritzeko eskatu nahi dizuegu. Hori ere elkarzaintza baita".



Mikel Otaegi, distantzia luzeko triatloian nagusi

"Ultra Triatlon Tierra Astur" hiru eguneko distantzia luzeko triatloi txapelketan nagusi zen Mikel Otaegi iraileko bigarren asteburuan. Ribadesellan (Asturias) ospatu zen txapelketa: irailaren 10ean 10 km igeri, 410 km bizikletan egin zituen. Biharamunean 270 km bizikletan eta irailaren 12an bi maratoi, guztira 84,4 km korrika. Hiru txapelketa egunetan helmugara iristen lehena izan zen usurbildarra. Zorionak!

57. Enrique Abril Errebote Txapelketa irailak 27 igandea

■ 9:00 Zubietan-Kapito Harri.

■ Tokia: Zubietan.



Zubietan jokatu da partida, goizeko 9:00etan.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361 182

ETXEBIZITZA**Salgai**

Munalurra 16, 5^a pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro². Igogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurrean. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trastelekua. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Alokairuan

Usurbilgo erdigunean gela bat alokatzen da, giza-seme langile

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira.

Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke:

943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

edo jubilatua. 687 348 223.

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago. 656704299.

Kale Nagusian. Garaje itxia salgai. 16m². Goiko solairuan. Apalategiekin. Hezetasunik gabe. Komunitateko garbitegia.

653716914

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Neska euskaldun baten bila gabilta, 9 urteko alaba zaintzeko eta etxeko lanekin laguntzeko. Arratsaldean aritzeko da. 663996931.

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuak hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegiaren. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakoko kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo heldue-

na. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. [Interesatuak deitu: 631 489 128](mailto:Interesatuak.deitu:631489128).

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizonetara eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelese ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest .664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza

**Zorionak lare!**

Irailaren 27an 4 urte egingo dituzu, zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partez!!

Egun polita izan dezazula!!

lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein gar-

biketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa.

Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zaindiko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Amuletageia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreata ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Egunko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

BESTELAKOAK

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirrinda bat opari. 9-12 urtekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZXQmf>

Isabelita Mandarinara Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atal-luko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

Irudi engainariak
Hamar puska hauek erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez dute beti irudi nagusiarekin identifikazio itzaia.

Bilatu
Bada gauzak bat inulian, inolez ere agertu beharke ez lukez, gero hortan oinarri gabea zela. Zein ote da?

Sudokua
Konturatu zinez, erriatuko jolas guztiak antzekoak egiten daude guretzat. Oso ezazu sudokua EGPTO hitzak dituen hitzak (E, A, I, P, T eta O). Gogoratu leku bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arak bakoitzeko.

11+1

Mezuja
Alfabetoari erreparatu, oinarri zer diren letraak.

Labirintoa
Aurki ezazu moniaren sorketaren inateko bidea, gero bertatik abiatuta.

Marratzu
Hori! Mami gurea erdiak marratuta dago. Oso ezazu, mesedez.

Margotu

Handitik txiki
Ondorio itzaia karkak, handienetik (1) txikienera (5).

Goardiako farmaziak

Osteguna 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 25 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 26 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 28 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 30 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Irailak 24 - Urriak 04

Osteguna 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 03 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 04 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Agenda iraila

25 ostirala

- **Autoestima eta autozaintza feminista tailerra** 15:00-20:00 Potxoenean. Aldez aurretik izena eman behar da 943 377 110 edo parekidetasuna1@usurbil.eus helbidean.
- **Euskal presoak etxeratzeko elkarretartzea.** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

26 larunbata

- **Autoestima eta autozaintza feminista tailerra** 9:00-14:00 Potxoenean.
- **'Harria Hitz' bisita gidatua.** 11:00 Usurbilgo frontoian. Izen ematea, aldez aurretik.
- **Mintzalagunek 10 urte! Bertso-magia ikuskizuna.** 18:30ean Mikel Laboa plazan.

27 igandea

- **Enrique Abril Errebote Txapelketa Zubietako errebote plazan.** 09:00etan Zubietako-Kapito Harri arteko partida.

'Harria hitz' bisita gidatua osatzeko aukera berri bat

Usurbilgo kultur ondarea hobeto ezagutzeko aukera berri bat izango da larunbat honetan. *Harria Hitz* ekimena pandemia garaira egokitu da eta gehienez ere 15 lagunek taldeak osatu daitezke. Aldez aurretik eman behar da izena.

Frontoitik abiatuta

Irailak 26 larunbata

- 11:00 Usurbilgo frontoian elkartu.
- 11:05 Harria Hitz bisita gidatua herrigunean: Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa plaza, Tapiaren murala, Askatasuna plaza, Sagardoaren monumentua.



Partehartzea mugatua da: 15 lagun baino ez.

- Prezioa: 5 euro.
- Izen ematea: aldez aurretik. 688 81 80 17 telefono zenbakian edo info@kultour.pro helbide elektronikoan.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

Argazki lehiaketa Santuenean

"Auzo koloretsua" gaiari lotutako argazki txapelketa antolatu du Santuenea Elkartek, adin guztietako herritarrentzat. 3 maila bereizi dituzte: haurrak (4-7 urte), gaztetxoak (8-16 urte); eta helduak.

Argazkiak aurkezteko azken eguna irailaren 30a izango da. Informazio gehiago, elkarteko egoitzan edo 670 02 77 31 telefono zenbakian.

Hitzaldi sorta antolatu dute KzGunean

Irailen 9:00-13:00 artean zabalik dago KzGunea. Joan aurretik hitzordua eskatu. Hitzaldi sorta bat ere antolatu dute, Youtuben duten "Kzguneari" kanalean.

- Irailak 24, 11:00-11:30 "Google Lens. Gure kamerarekin bilatu".
 - Irailak 29, 18:00-18:30 "Argazki mugikorrek aholkuak".
- Informazio gehiago: tutor.usurbil@kzgunea.net/ 943 023 684 / Nagusia, 37.

Datozenak

"Bertso-magia", Mintzalagunen 10. urtemuga ospatzeko

Bidelagun eta bidelarien arteko elkarlanaz euskararen erabilera ahotan hartzea sustatzea helburu nagusi duen Mintzalagun egitasmoak 10 urte bete ditu Usurbilen. Urtemugarako ospakizun ekitaldia antolatu dute larunbaterako (irailak 26) 18:30ean Dema plazan (euria bada Sutegin) Usurbilgo Udalak, Etumeta AEK euskaltegiak eta NOAUA! Kultur Elkartek. Bertso-magia ikuskizuna Eriz magoarekin eta Eli Pagola eta Asier Azpiroz bertsolariekin. Hitzordurako irailaren 23a baino lehen izena eman beharra zegoen usurbilkultura.eus atarian.

Matrikulazio garaia euskaltegian

Euskara ikasteko maila guztiak, Mintzalagun, autoikaskuntza... eskaintza zabala aurtan ere euskaltegian. Urriaren 5ean abiatuko den 2020-21 ikasturte berrirako matrikulazio epea zabalik dute Etumeta AEK euskaltegian.

Informazio gehiago:

Nagusia, 43
607 609 379
usurbil@ae.eus
ae.eus
muntteri.blogspot.com.es

Otar-Goxo
Elkargaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA · KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA ·
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com
600 024 825



**AEKn, IRAKASLE BATEK
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.

EUSKARA-IKASTAROAK

Etumeta AEK euskaltegia

**Goiz eta arratsaldez Maila guztiak A1, A2, B1, B2, C1, C2
AUTOIKASKUNTZA zerbitzua**

Kale Nagusia 43, Usurbil
607 609 379 · usurbil@aek.eus
www.blogstopt.com

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
maila egiaztatuz gero.

asistentziaren %80 betez gero, matrikularen %100



Aurrez aurreko eskolak



Mintzapraktika



Barnetegiak



Autoikaskuntza



Online



aizu! aldizkaria



Normalizazio-planak



Itzulpenak-Zuzenketak

**Eman
izena**

- HABEk homologatutako euskaltegiak
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

www.aek.eus

673 200 100 - 946 464 000



Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

gertu@go

www.gertuago.eus



Labegoxo



Laukote



Laurok



Mikel Arraindegia



Opilgoxo



Otargoxo



Txalaka



Txapartegi



Txiriboga



Txirrista



Zumeta Jatetxea



Solozabal autoeskola